

EGUNERO GAIAK

EG4

MAHASTIAK ARABAKO ERRIOXAN

ARDOA, EGURALDIAREN ZIGOR-KOLPEEN MENPE


Ekain hasierako txingor eta euri jasek 1.500 mahasti hektarea hondatu zituzten Arabako Errioxan; 1,3 milioi euroko kalteak kalkulatu dituzte aseguru-etxeek. Eguraldiaren gorabeheren eta ezustekoen mende dagoen sektorea da ardogintza, «dagokionean dagokiona» egitea da mahastiek behar dutena. Samaniego Ostatu upategiko Maialen Miguel Biurraerenak aurtengo gorabeheren nondik norakoak azaldu dizkio NAIZ Irratiari.

Ekain hasieran izan diren ekaitz, euri jasa eta txingorrek Arabako Errioxan mahasti ugari zapuztu ditu. Datu esanguratsua utzi zuen euriak Lapuebla de Labarca inguruan: metro koadroko 30 litro ur erori ziren. Guztira, 1.500 mahasti hektarea hondatu dituzte euriak eta txingorrek. Aseguru-etxeek zehaztu dute 1,3 milioi euroko kalteak izan direla.

Ostatu upategia Samaniego dago. 315 biztanle bizi dira bertan eta, Arabako Errioxako udalerrria izanik, herriko jarduera ekonomiko nagusia mahastizaintza da. Horren adibide da Matarredo izena duen auzoa; bertan daude upeltegi klasikoak.

Ostatu-n azken kolpetik libratu dira. Maialen Miguel Biurraerenak NAIZ Irratiari azaldu dionez, «tentsioz eta beldurrez» bizi izan zituzten ekain hasierako ekaitzak, baina «zorionez» ez zien kalte handirik eragin. Samaniego inguruko herrietan baino euri gutxiago egin baitzuen. «Aste oso zaila izan zen guretzat, baina bereziki Lapueblan eta Oionen, herri horietan kalte handia eragin zuen denboraleak», argitu du.

Bere hitzetan, zuzeneko eragina dute halako eguraldi kolpeek mahastietan, «onddoen sorreran eta gaixotasunetan zuzeneko eragina du; mahatsa hazten ari da orain eta oso txarra da hezetasuna. Gainera, euri asko egin zuen eta gero bero handia, eta



Ostatu upategiko mahastiak, Samaniego. Rubi BOLAÑO | FOXU

konbinazio horrek kalte handia eragiten du». Bestalde, kazkabarrak zuzenean apur dezake mahatsa eta euri jasa handia dagoenean «urra arrastaka eramaten du eta honen propietate guztiak eramaten ditubekin».

Azken urteetan halako gertakari bat baino gehiago izan da eta horrek arriskuak aurreikustera eraman ditu mahastizainak; «2017a oso urte zaila izan zen izotzak gogor jo zuelako, guri kalte handia egin zigun eta ia produkzio guztia galdu genuen. Horrek beldur handia eragin zuen eremu osoan». Ondorioz, ugazabek aseguratatu egin zituzten mahasti gehienak.

Muturreko fenomeno oro da kaltegarria mahatsarentzat. «Garai bakoitzean dagokiona egitea da behar duguna; udan bero egin dezala, baina neurrikoa, eta neguan hotz», azaldu du Ostatu upategikoak. Izan

ere, klima aldaketaren zuzeneko eraginak ere nabari dituzte; «mahats bilketa irailean hasi ohi genuen eta azken urteetan ia urrian hasten dugu. Atzeratu egin da». «Tenperaturak eta eguraldiak eragin handia dute, eta mahatsari gero eta gehiago kostatzen zailo haztea», esan du Biurraerenak.

FAKTORE UGARIKO LANA

Eguraldiari begira lan egiten dute une oro, euria, lehorreak edo bestelako faktore klimatologikoak aurreikusitako ahal izateko. Horretarako, astero kontrolak egiten direla azaldu du Biurraerenak: «Asko kontrolatzen dugun kontua da, zeren eta kontrol horien arabera mahastietan lan bat edo beste bat egiten dugu. Ezinbestekoa da».

Azaldu duenez, hainbat lan daude horrelako enpresa batean: bulegoan eskariak gestioztatzen dira egunero, upategietan ardoa

ERREPORTAJEA



Pelti LEKUONA

botilatzen da, mahastian lurra lantzen da... «Eguraldiaren arabera, mahastian lan bat edo beste bat egiten da».

Hamar ardo mota baino gehiago ditu Ostaturak, eta horrek mahats mota ezberdinak eskatzen ditu. Biurrarenak azaldu duenez, beren produkzioaren %30 ardo zuria da. Gainera, bi talde nagusitan banatzen dituzte ardoak: gazteak eta "egile-ardo" esaten dietenak: «Ardo gazteetan krietza, erreserba eta halakoak sartzen dira. 'Vinos de autor'-etan ardo espezialak daude; ardo hauek lantzeko mahats hobereak erabiltzen ditugu. Adibidez, 'Gloria' izeneko ardoak ia 15 urtez iraun dezake botilan merkaturatu baino lehen».

Aurtengo uzta «momentuz ondo» doala dio; 400.000 kilo mahats jaso ohi dituzte eta 300.000 bat botilatan jasoko dute aurtengo ardoa. «Espero dugu orain uda ondo joatea eta ekaitz asko ez izatea». Eguraldiaren beste ezustekorik ez bada, irail amaieran edo urri hasieran espero dute mahatsa jasotzea.

COVID-19AREN URTEA

2008ko krisiak gogor jo zuen sektorean eta ardo salmentek nabarmen egin zuten behera. Orain, covid-19ak eragindako krisia ere gogorra izan da. Alarma egoera ezarri zenean itxi egin behar izan zituzten upategiak, «telelana ezarri zuten eta upategietan ezin da telelanik egin, noski, bertara joan behar duzu». Hilabeteak igaro ahalia pixkanaka martxa berreskuratu dute, «maskarekin eta distantziak mantenduz».

Zuzenean eragin die ostalaritzaren itxierak, «asko jaitsi baitzen eskaria». *Online* salmentaren bidez saiatu dira galera hori konpentsatzen, eta, Biurrarenak dioenez, «nahiko ondo joan da». *Online* bidezkoak behera egin du azken asteetan, baina taberna eta jatetxeak irekitzearekin «poliki-poliki egoerari buelta ematen» ari direla esan du Miguel Biurrarenak.



Ostatu-ko kanpoaldea. Upategi honetara bisita egin du NAIZ Irratiak, aurtengo denboraldiaren xehetasunak bertatik bertara ezagutzearren.

RAÚL BOCANJO | FOXU

gozotegia
Jarraga
Konfitegia · Pasteldegia

Urbietan etorbidea, 7
☎ 943 55 09 10

www.ulaziaharagiak.com

haragiak
ULAZIA

943 303 920 / 606 085 335
info@ulaziaharagiak.com

JARDINERITZA

Kima

SU-EGURRA

Tlf. 669 903 635
www.jardineriadonostia.es